

## GOBERNU BATZARRA

2016. 05. 16

<b>Alkatea:</b>	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamaseiko maiatzaren hamaseian, goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
<b>Olatz Peón Ormazabal</b>	
<b>Zinegotziak:</b>	
<b>Patxi Amantegi Zubiria</b>	
<b>Nerea Letamendia Belloso</b>	
<b>Jokin Azkue Arrastoa</b>	
<b>Iñigo Alonso Sarasibar</b>	1.- Aurreko akta onartzea.
<b>Idazkaria:</b>	2.- Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Familia ugarien hobaria. M.A.B.A.ren eskaera.
<b>Jose Luis Unanue Ugalde</b>	
<b>Kontuhartzaitzako Teknikaria:</b>	3.-14/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.
<b>Paulino Alonso Eraso</b>	

### **1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2016ko maiatzaren 9an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

### **2.- Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Familia ugarien hobaria. M.A.B.A.ren eskaera.**

Bi mila hamaseiko urtarrilaren 13an, **M.A.B.A.**k familia ugarietara aplikatzen zaien Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotako hobaria eskatu du.

**M.A.B.A.** Almirante Rekaldeko 7-3.esk. Etxebizitzaren jabe da. Baina, gaur egun, etxebizitza hori salgai jarri du eta alokairuko etxebizitza batera joan dira. Azken etxebizitza honetan erroldatu dira.

Bere jabetzakoa den etxebizitzaren OH Zerga ordaindu behar du, eta, familia ugaria denez, hobaria eskatu du. Hobaria emateko, aldiz, familia ugaria bertan erroldatuta egon behar du. Kasu honetan, bere jabetzakoa den etxebizitzan ez daude erroldatuta, alokairuko etxebizitzan baizik.

Adierazitakoa aintzat hartuta, eta kontuhartzailletza departamentuan egin duen txostenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Ez ematea **M.A.B.A.**ri 2016ko Ondasun Higiezinaren gaineko zergaren osoko kuotaren hobaria.

**BIGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailletza departamentuari eta interesatuari.

### **3.-14/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.**

Kontuhartzailletzak **14/2016** faktura zerrenda aurkeztu du; **140.528,94 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- **14/2016** faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA**.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailletzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 09:00etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**

**Olatz Peon Ormazabal**

**Jose Luis Unanue Ugalde**

